

Euskal AEko atzerritarren erdiak Espainiako naziotasundunekin bizi dira

Atzeritarren %9,2 bakarrik bizi dira eta %3,3 establezimendu kolektibotan

2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera, atzeritarren %48,8 Espainiako naziotasundun pertsona bat behintzat bizi den familietan bizi dira, %3,3 kolektibo batean erroldatuta daude eta gainerako %47,9 kide guztiak atzeritarrak diren familietan. 2001ean, guztira, atzeritarrek bakarrik osatutako 6.336 familia kontatu ziren eta mistoak 10.482. Azken horietan, 15.198 pertsonak Espainiako ez den naziotasunen bat zuten eta 22.981ek Espainiakoa.

1991tik hona, kide guztiak atzeritarrak dituzten familiak bost aldiz gehitu dira (1991an 1.227 familia kontatu ziren) eta familia mistoak 2,5 aldiz (1991an 4.175).

Atzeritarren %9,2 bakarrik edo erroldatutako pertsona bakarra bizi den etxeetan bizi dira. Atzeritarrek bakarrik osatutako familietatik %17,2 konposatuak dira, hau da, bizikideekin ahaideetasuna izan dezakete edo ez, baina ez dira inoiz bikoteak edo guraso-seme-alabak izango. Familia-zentsu guztirako, familia-mota horrek %3,4 hartzen du. Kasuen %12,1en, ezkontideek edo izatezko bikoteek (seme-alabekin edo gabe), aita edo ama seme-alabekin eta beste pertsona batzuek osatutako gunea dute familiek –familia zabalduak-.


Atzeritarren familien batez besteko tamaina txikiagoa da Euskal AEko familietakoa baino.

Atzeritarrek osatutako familien batez besteko tamaina (2,36) hemengoena (2,76) baino txikiagoa da. Atzeritarrek eta ez atzeritarrek osatutako familiak batez beste 3,65 kidera iristen dira eta horrek adierazten digu pisu probablea dutela ezkontza mistoek eta/edo Espainiako naziotasundun seme-alabak izateak. Atzeritarrek bakarrik osatutako familien batez besteko txikiaren arrazoiak bi izan daitezke: biztanleria hori gaztea izatea edo beraien familien zati bat euren jatorrizko herrietan utzi izana. Azken egoera horrek familia berriro batzeko prozesuak ekar ditzake etorkizunean.

2001ean erroldatutako 31.167 atzeritarretatik %45,7k Ameriketako herrialderen bateko naziotasuna dute, %31k Europakoa, %18,4k Afrikakoa, %4,7k Asiakoa eta %0,2k Ozeaniakoa. Sexuaren arabera, Ameriketako naziotasundunen %62 emakumezkoak dira. Afrikarren artean, aldiz, alderantziz gertatzen da eta %67 dira gizonezkoak.

Atzeritarrek batez beste 32,5 urte dituzte, gainerako biztanleriak baino bederatzigutxiago.

Euskal AEko atzerritar egoiliarak, naziotasunaren eta sexuaren arabera. 2001.



Iturria: Eustat

Atzerritarren %50 hiru hiriburuetan kontzentratzen da. Zehatzago, %23,6 Bilbon bizi dira, %17 Vitoria-Gasteizen eta %10 Donostia-San Sebastianen. 16 urte edo gehiago dituztenen %54,3 landunak dira eta %12,9k ez dute lanik. Beraz, langabezia-tasa %19koa da, 2001eko guztizko biztanleriaren %11,6koaren aldean. %32,8 bakarrik dira ez-aktiboak eta horietatik %14k etxeko lanak egiten dituzte, %9k ikasi egiten dute eta gainerakoak bestelako ez-aktibotasun egoeran daude (erretiratua, lanerako ezgaituta, etab.) Euskal AE osotara hartuta, ez-aktiboaren portzentajea biztanleriaren %53,1era iristen da.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jesús Rodríguez Marcos

Tel.: +34-945 01 75 31. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es